



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO URRIAREN 9AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka

Etorri diren zinegotziak:
Maria Iciar Jauregui Huarte

Victoria Rodriguez Feloaga

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko urriaren 9an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2015KO IRAILAREN 18KO AKTAREN ONARPENA

2015ko irailaren 18an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015ko irailaren 18an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- 2015EKO URRIAREN 2AN OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAK HARTURIKO ERABAKIEN INGURUKO ERABAKIAK

2.1 EUSKAL HERRIA 28 ZKAN HORTZ KLINIKA JARDUERAREN IZARPENAREN ALDEZ AURREKO KOMUNIKAZIOA

2014ko urriaren 31n, Nerea Izaguirre Paredesek obra txikiko lizentzia eskatu zuen lokalean hortz klinakarako eraberritze lanak egiteko. 2014ko abenduaren 10ean 372/2014 Alkate Dekretuz eman zitzaion eskatutako baimena.

2015eko ekainaren 4an alde zuzeneko komunikazioa aurkeztu zuen. Komunikazioarekin batera 372/2014 Alkate Dekretuan eskatutako agiri guztiak aurkeztu zituen.

Komunikazioa eginda dagoela, komunikazioa aurkeztu den egunetik bertatik has daiteke gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administrazio Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Euskal Herria 28 zk.an hortz-klinika jarduera udal araudiari egokitzen dela ikusten da.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa ikusi ondoren eta lokala ikusi ondoren honakoa esan daiteke:

Lokalak solairu bakarra dauka, guztira 66,55 m²ko azalera erabilgarria dauka.

Irisgarritasunari dagokionez, atearen bi aldeetan atearen orriek hartuko ez duten espazio libre bat egotea eskatzen zen, 1,80 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulu bat egitea ahalbideratuko zuena.

Baldintza hau ez da betetzen itxaron gunea eta harrera banatzen dituen pareta dagoelako. Gainera, itxaron gunean eserlekuei lotuta dagoen mahai txiki bat dago.

68/2000 Dekretuak 5. eraskinean dio eraberritze lanetan salbuespenak egon daitezkeela ezaugarri orografikoen, estrukturalen edo formari lotutako onorioz, besteak beste. Kasu honetan, lokala oso estua da eta eranskinak zehazten duen erabilgarritasun-irizpide bat, hain zuzen ere 1,40 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulua egitea, ez da posible ez baitago zabalera nahikoa ortopantomografoaren gela eta harrera jartzeko, planoan eta bertan ikusten den bezala. Tarteak 1,30 m-koa da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Carlos Caballero arkitektoak horri buruzko txostena aurkeztu du. Itxaron gunea oso txikia dela eta ondoan dagoen ortopantomografoaren gela behar beharrezkoa dela dio, hori dela eta, fisikoki ezinezkoa dela 1,80 mko tartea bermatu.

1. eranskinak 8.artikulan zehazten du gurgil-aulki batean mugitzeko zein den beharrezko espazioa . Arkitektoak dioenez, artikulua horrek zehazten dituen parametro horiek (1,40 m) betetzen dira sarreran. Dagoen tartea, berriz, 1,30 mkoa da. Dena den, kasu honetan, 10 cm-ko kontua da eta ikusten da, gurgildun aulkian mugitzen diren pertsonak lokal barrura sartzea badutela, gainera, 1,40 m diametroko espazioa lortzeko jarduerari kalte handia egingo lioke.

2015Eeko urriaren 2an eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Udala jakitun dela Nerea Izaguirre Paredesek komunikazioa egin duela Euskal Herria 28an hortz-klinika jarduera martxan jartzeko eta une horretatik bertatik has daitekeela gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administrazio Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Honako baldintzak bete beharko ditu:

1.- Ezin dira gairitu 40 db(A) gaueko hamarrak arte edo 30 db(A) goizeko 8ak arte, Leq. Minutu baten baliokide den maila jarraian, ez eta 45 db(A) eta 35db (A) ate eremuko gehieneko balio gisara, logela, sukalde eta egongeletan goizeko 8etatik 10etara.

2.- Lokala aireztatzeak ez die bizilagunei eragozpenik jasanaraziko.

3.- Irisgarritasunari dagokionez, ontzat ematen da teknikariaren justifikazioa. Hala ere, itxaron gelan dagoen mahaitxoak sarrerako zirkuluaren espazioa oztopatzen du, beraz, espazio horretatik kendu egin beharko da gurgil-aulkiak ahalik eta eroso mugitu ahal izateko.

4.- Jarduera hastea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat; hala ere, jarduerak hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da sektorean aplikatzeko den araudiaren arabera baimena edukitzeko beharrezko diren titulu administratiboak aurretik eskuratzea edo egin beharreko kontrolak aurretik eginda edukitzea.

5.- Baldin eta lege honen II.eraskineko B atalean jasota dagoen jarduera honek, funtzionatzen hasten denean, gairitu egiten badu aipatutako atal horretan jarduera horretarako ezarritako



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

edozein muga, aurrerantzean, jarduera sailkatuaren lizentziaren araubidea ezarriko zaio jarduera horri.

BIGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi Nerea Izaguirre Paredes andreari.

2.2 EUSKAL HERRIA 11 ZKAN FRUTA DENDAREN EZARPENAREN ALDEZ AURREKO KOMUNIKAZIOA

2015eko ekainaren 22an Yolanda Zabala Acostak, Sabir Hameeden izenean, Ibarra Udalari jakinarazi zion Euskal Herria 11an zegoen fruta denda berriro ireki nahi zuela. Ez zuen obra egiteko asmorik, soilik txukunketa lanak.

Aurreko titularrak 2014ko uztailaren 30ean eman zion baja jarduerari.

Lokala ikustera joan ondoren jakinarazi zitzaion eskatzaileari sarrerako koska kendu behar zuela irisgarritasun legeak eskatzen duen moduan. Egurrezko arrapala egin zuten koska kentzeko.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa ikusi ondoren ondorengoa egiaztatzen da:

Lokalak behe solairuan 101,05 m²ko azalera erabilgarria dauka.

Lokalean soilik txukunketa lanak egiteko asmoa dutela adierazi dute.

Arkitektoak irisgarritasunaren justifikazioa aurkeztu du esaten duena sarreran ezinezkoa dela dekretuak V. eranskinean ezartzen duen 1,40mko zirkulua egitea. Sarreran zutabe bat dauka baina zutabe hori pasata posible da espazio hori bermatzea. Egia esan, sarrerako zutabeak eta lokalaren geometriak, estua eta luzea, zaila egiten dute obra integrala egin gabe esandako espazioa bermatzea.

2015eko urriaren 2an eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Udala jakitun dela Sabir Hameedek komunikazioa egin duela Euskal Herria 11an fruta-denda martxan jartzeko eta une horretatik bertatik has daitekeela gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administrazio Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Honako baldintzak bete beharko ditu:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 1.- Ezin dira gainditu 40 db(A) gaueko hamarrak arte edo 30 db(A) goizeko 8ak arte, Leq. Minutu baten baliokide den maila jarraian, ez eta 45 db(A) eta 35db (A) ate eremuko gehienezko balio gisara, logela, sukalde eta egongeletan goizeko 8etatik 10etara.
- 2.- Lokala aireztatzeak ez die bizilagunei eragozpenik jasanaraziko.
- 3.- Mota guztietako makinaren finkatzea dardararen kontrako elementuez egin beharko da, eraikinaren egiturara, gertuko lokal eta etxebizitzetara dardararik heldu ez dadin.
- 4.- Hondakinak kentzea, indarrean dauden udal arauak dioten bezala egingo da; beti edukiontzi itxietan bilduko dira.
- 5.- Irisgarritasunari dagokionez, ontzat ematen da teknikariaren justifikazioa.
- 6.- Jarduera hastea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat; hala ere, jarduerak hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da sektorean aplikatzeko den araudiaren arabera baimena edukitzeko beharrezko diren titulu administratiboak aurretik eskuratzea edo egin beharreko kontrolak aurretik eginda edukitzea.
- 7.- Baldin eta lege honen II.eraskineko B atalean jasota dagoen jarduera honek, funtzionatzen hasten denean, gainditu egiten badu aipatutako atal horretan jarduera horretarako ezarritako edozein muga, aurrerantzean, jarduera sailkatuaren lizentziaren araubidea ezarriko zaio jarduera horri.

BIGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi Sabir Hameed jaunari.

2.3 EUSKAL HERRIA 18ZK.KO ATZEALDEAN KALE GARBIKETAREN MAKINAK GORDETZEKO LOKALAREN EZARPENAREN ALDEZ AURREKO KOMUNIKAZIOA

2015eko ekainaren 30an TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.k, Ibarra Udalari jakinarazi zion Euskal Herria 18ko lokalean kale garbiketako makina gordetzeko jarduera martxan jarri nahi zuela.

2015eko otsailaren 18an obra baimena eskatu zuen lokala egokitzeko. 2015eko martxoaren 17an 46/2015 Alkate Dekretuz eman zitzaion baimena.

Lokala ikuskatu ondoren ikusi da aurkeztutako dokumentazioarekin bat datorrela.

2015eko urriaren 2an eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA: Udala jakitun dela TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.k komunikazioa egin duela Euskal Herria 18ko lokalean kale garbiketako makina gordetzeko jarduera martxan jartzeko eta une horretatik bertatik has daitekeela gauzatzen jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Honako baldintzak bete beharko ditu:

- 1.- Ezin dira gainditu 40 db(A) gaueko hamarrak arte edo 30 db(A) goizeko 8ak arte, Leq. Minutu baten baliokide den maila jarraian, ez eta 45 db(A) eta 35db (A) ate eremuko gehienezko balio gisara, logela, sukalde eta egongeletan goizeko 8etatik 10etara.
- 2.- Lokala aireztatzeak ez die bizilagunei eragozpenik jasanaraziko.
- 3.- Jarduera hastea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat; hala ere, jarduerak hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da sektorean aplikatzeko den araudiaren arabera baimena edukitzeko beharrezko diren titulu administratiboak aurretik eskuratzea edo egin beharreko kontrolak aurretik eginda edukitzea.
- 4.- Baldin eta lege honen II.eraskineko B atalean jasota dagoen jarduera honek, funtzionatzen hasten denean, gainditu egiten badu aipatutako atal horretan jarduera horretarako ezarritako edozein muga, aurrerantzean, jarduera sailkatuaren lizentziaren araubidea ezarriko zaio jarduera horri.

BIGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L enpresari.

2.4 SAN INAZIO 13-16RA JOATEKO BIDEAREN KONPONKETA. MULARRIEN AURREKONTUAREN ONARPENA

Ikusita San Inazio 13-15 etxe taldera doan bidea oso egoera txarrean dagoela eta sarrerako saretoa apurtuta dagoela eta urak jasotzeko funtzioa betetzen ez duela, Mularri S.L. enpresari eskatu zitzaion egindako aurreko obrako prezioak mantenduz gune hori konpontzeko aurrekontua.

Aurkeztutako aurrekontua 6.377,06 €koa da BEZ barne.

0000.210.450.00.00 2015 partidaren gastu horri aurre egiteko dirua badagoela ikusi da.

Idazkariak espedientean 3 aurrekontu egotea beharrezkoa dela adierazten du eta honen berri emango dio udal aperajadoreari.

2015eko urriaren 2an eginiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea Mularriren aurrekontua 6.377,06 €koa da BEZ barne eta obrari hasiera ematea. Obra hau 1 0000.210.450.00.00 2015 partidatik finantzatuko da.

3.- 2015EKO URRIAREN 2AN PERTSONAL BATZORDEAK HARTURIKO ERABAKIEN INGURUKO ERABAKIAK

3.1 GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

2010eko uztailaren 23ko 145/2010 Alkate Dekretu bidez Nerea Aldazabal zerbitzu-eginkizunetan atxiki zen behin-behinean Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen lanpostura, lanpostu hau hutsi zegoen bitartean.

Bete gabeko lanpostuak betetzeko zerbitzu-eginkizunek bi urte baino gehiago ezin dute iraun, beraz lanpostu hau behin-betiko betetzeko sistema martxan jartzea beharra dago.

Kontuan izanda Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen dituen Legeak 78 eta 79 artikuluetan dioena eta baita 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.g, 91 eta 100 artikuluetan dioena.

Kontuan izanda Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen Legeak 54. artikuluan dioena eta 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena,

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Deialdia egitea Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzaile lanpostua merituen lehiaketa bidez betetzeko.

BIGARRENA: Onartzea hutsik dagoen Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzaile lanpostua betetzeko oinarriak, merituen lehiaketa bidez egingo dena. (I eranskina)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Oinarri horiek Lurraldkeo Aldizkari Ofizialean argitara ematea eta baita aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean.. Horrela, hogeit eguneko epean, Estatuko aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik kontatzen hasita, interesdunek beren eskabidea aurkeztu ahal izango dute.

LAUGARRENA: Aurrerantzean, eta kasu honetan egin den moduan, merituen lehiaketa bidez egiten diren prozesu guztietan ariketa praktikoren bat ere egitea.

I ERANSKINA

**IBARRAKO UDALEAN GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI
LAGUNTZAILE LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK**

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da ondoren zehaztuko den hutsik dagoen lanpostua betetzeko prozedura arautzea . Horretarako Ibarra udalean dauden administrari laguntzaileen merituen bidezko lehiaketa egingo da.

Lanpostua: Gizarte zerbitzuetako administrari laguntzailea.

Taldea: C2

Lanpostu mailako osagarria: 18

Berriazko osagarria: 650 puntu

Hizkuntza eskakizuna: 2.a derrigorrezkoa

Titulazioa: LH 1. Eskola graduatua edo antzekoa.

2. IZANGAIAK ONARTZEKO BALDINTZAK .



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- a) Ibarra Udaleko karrerako funtzionario izatea eta jabegoz administrari laguntzaile lanpostua betetzea.
- b) Zerbitzu aktiboan izatea edo bestelako administrazio egoeran, etenaldi irmoan izan ezik.
- c) Bere behin betiko lanpostuan gutxienez 2 urtez aritu izana eskabideak aurkezteko epea amaitzen den arte, betiere, legeak ezarritako salbuespenak kontuan izanda.
- d) Euskarazko 2 HE, derrigorrezkoa.

Ezingo dute parte hartu lehiaketan honako hauek:

- a) Funtzionarioak, baldin eta lehiaketa bidezko lanpostu bat jabegoan bete badute aurreko bi urteetan, berdin da zein den jatorrizko administrazioa edo zein taldekoa den. Denbora muga hau ez da kontuan hartzen langileak lehiaketa bidez lortu duen lanpostuarekiko atxikipena galdu badu.
- b) Edozein funtzionario, baldin eta zereginen etenaldi irmoan aurkitzen bada, egoera horrek dirauen bitartean.
- c) Bestelako langileak, baldin eta borondatezko lan utzialdian aurkitzen bada interes partikularrengatik edo senidetzeagatik, eta berriz sartzeko eskatutako gutxieneko denbora igaro ez badu.

4 . Lan utzialdi egoerak, lanpostua mantenduz edo adin txikikoak zaintzeagatik lan egindako denboratzat hartuko dira parte hartze eta balorazio garaian.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA.

Eskaerak, meritu lehiaketan parte hartzeko eskatuz, eredu ofizial eta normalizatuan egin behar dira. Eredu hori oinarri hauen I Eranskinean dator (Eskaera orria).

Ibarrako Udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio; Ibarrako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira. Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira ondorengo xedapen honetan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 38.4 artikulua araberako, 15 laneguneko epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Lehiaketan parte hartzeko eskabideek baldintza hauek bete behar dituzte onartuak izateko:

- a) Bigarren oinarrian jasotzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu beharko dute, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan izanda.
- b) Ebaluazio batzordeak bere balorazioa egin ahal izateko, izangaiek ahalik eta datu gehien adieraziko dute merituari buruz, formakuntza eta lan arlokoak. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira- ez bada udal honetan- horiek egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak nahiz kopia konpultsatuek, eta ondoren adierazitako moduan:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Lan eskarmentua enpresaren edo Administrazioaren ziurtagirien bidez egingo da. Bertan kontratuaren iraupena, dedikazio portzentaia, lan kategoria eta burututako zereginak zehaztuko dira. Ibarra udalean lan egin badu, nahikoa izango da hori adieraztea eta hautagai horren espedientean dauden datuak baloratuko dira.
- Formakuntza saioen egiaztagiriak: beren iraupena ordu edo kredituetan eta baita edukia ere, baldin eta hori argi ez bada azaltzen izenburuan. Ez dira aintzat hartuko iraupena jasotzen ez duten egiaztagiriak.
- Antzintasunari buruzko merituak baloratuko dira egiaztatu beharrik izan gabe, Giza Baliabideetako departamentuan dauden datuen arabera.

4. IZANGAIEN ONARPENA .

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, alkateak onartu eta baztertuen zerrenda argitaratu egingo du, balorazio batzordea osatzen duten kideen izendapenarekin batera. Berau argitara emango da Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian: www.ibarra.eus. Hamar eguneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betiko bihurtuko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada aurkezten. Erreklamaziorik aurkezten bada, onartu edo ezetsi egingo dira, beste ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan behin betiko zerrenda onartuko da eta Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian: www.ibarra.eus . argitaratuko da.

5. BATZORDE EBALUATZAILEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. Batzorde ebaluatzailea kide anitzeko izango da , izaera teknikoa izango du eta bere eraketak profesionaltasun eta espezializazio printzipioei erantzungo die.

Batzorde horren kide kopurua bakoitia izango da , bost gutxienez eta alkateak izendatuak. Horietatik bat lehendakari izango da eta beste bat idazkari.

2. Balorazio batzordeek deialdia egin duen agintaritzari eska diezaioke aholkuari gisa lan egingo duten adituak izendatzeko. Horiek hitza izango dute baina botorik ez.

3. Balorazio batzordeen osaerak bere kideen egokitasun eta kualifikazioa bermatu behar ditu. Helburu horrekin deia egiten duen organoak lanpostu horien eduki funtzionala ezagutzea zainduko du, eta baita aukeraketa teknikak nahiz deialdiko merituen egiaztatzea.

4. Balorazio batzordeetako kideak karrerako funtzionarioak izango dira, deitzen den lanpostuak duen titulazio maila berdinekoa edo goragokoa. Ahal dela taldeko erdia lanpostu horretako zereginetan aritu izana izango da edo ezagutza horiek dituen.

5. Balorazio batzordeak independentzia osoz, diskrezio tekniko eta objetibotasunez jardungo du. Beren proposamenak lotesleak izango dira administrazioarentzat. Balorazio batzordeen jarduketek duten diskrezionalitate teknikoa baztertu gabe, bere ebazpenak arrazoituak izango dira araudiaren eta deialdiaren oinarrien arabera.

6. Balorazio batzordearen eraketa eta jarduketa arau hauen arabera izango da: Oinarri hauek, aplikagarri den araudia eta azaroaren 26ko 30/1992 legea, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoa eta Administrazio prozedura Erkideari buruzkoa.

6. KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENAK



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Prozedura honetatik eratorritako Balorazio batzordearen komunikazio eta jakinarazpen oro Ibarra udaltxeko iragarki oholean eta web orriaren bidez egingo dira.

7. LEHIAKETA

Batzordeak agiri bidez alegatu eta egiaztaturiko meritu guztiak baloratuko ditu hirugarren oinarriaren arabera eta iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna kontuan izanda.

Lehiaketaren gehienezko puntuazioa 10 puntu dira, eta gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira.

7.1 Egindako lanaren balorazioa:

-Herri administrazioan edota enpresa pribatuan izandako esperientzia administrari laguntzaile lanpostuan. Gehienez 4 puntu, 0,04 puntu hilabeteko.

Eraitza izango da lan egindako aldiak batuta lortutakoa, eta hilabete baino gutxiagoko aldiak ez dira kontuan hartuko. Hilabetetzat hartuko da 30 egun naturaleko aldia.

7.2 Antzintasuna:

Emandako zerbitzuak baloratuko dira 3 puntu arte. Honela egingo da batuketa:

- Herri administrazioiko zerbitzuak, 0,02 puntu hilabete osoko.

Lan egindako aldiak batuko dira eta hilabete baino gutxiagoko aldiak ez dira kontuan hartuko. Hilabetetzat hartuko da 30 egun naturaleko aldia.

Karrerako funtzionario izan aurretiko zerbitzuak batuko dira, betiere egiaztatuta baldin badago.

7.3 Proba praktikoa:

Lanpostuarekin zerikusia duten proba bat edo batzuk egingo dira eta 2 puntu baloratuko da.

7.4 Formakuntza ikastaroak:

Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak: puntu 1 arte. Atal honetan baloratuko dira HAEEK, INAPEk eta formazioko gainerako Zentro ofizialek emandako ikastaroak, baita etengabeko formaziorako hainbat lankidetzak erakundek emandako ikastaroak, betiere, lanpostu horren zereginekin lotura estua badu. Ordu kopuruaren arabera baloratuko dira ondorengo taula honi jarraituz:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 10-40 ordu bitartekoa: 0,25 puntu.
- 41-80 ordu bitartekoa: 0,50 puntu
- 80 ordu baino luzeagoa: 0,75 puntu.

8. BALORAZIO BATZORDEAREN PROPOSAMENA.

Lehiaketa amaitutakoan, balorazio batzordeak behin-behineko proposamena egingo du aukeratze prozesuan zehar puntu gehien lortu duen izangaiaren alde, betiere, gutxieneko puntuazioa lortu baldin badu.

Proposamen hau Ibarra udal txeko iragarki oholean emango da argitara eta 10 eguneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazio hauek balorazio batzordeak ebatziko ditu.

Berdinketa emango balitz, lege honen arabera erabakiko da: urriaren 13ko 190/2004 Dekretua, Herri Administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Erregelamendua onartzen duena, eta zehazki bere 20 art.

Balorazio batzordeak lehiaketa hutsik uztea proposatuko dio eskumeneko organoari inork ez badu gainditzen ezarritako gutxieneko puntuazioa.

Proposamena behin betikotzat ulertuko da erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Halakorik aurkeztuko balitz, onartuak edo baztertuak izango dira esleipen proposamen berri baten bidez eta hori lehen aipaturiko moduan emango da argitara.

9. EBAZPENA, UZTE ETA KARGU HARTZEA.

Proposatu den izangaiak 10 eguneko epean, iragarkia egiten denetik kontatzen hasita, aurkeztuko ditu oinarri hauetan jasotzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen ditueneko egiaztagiria. Horrez gain, alegatu dituen merituen jatorrizko agiriak, baldin eta bere espedientean jasota ez badaude.

Lehiaketa alkate dekretu bidez erabakiko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

Hiru eguneko epea dago lanpostuaren jabe egiteko, behin lehiaketaren iragarkia ematen denetik kontatzen hasita.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Dena den, antolakuntza arrazoiak direla eta, hori ezineko bada, kargu hartzearen egun zehatza zehaztu ahalko da.

10. MUGIKORTASUNA.

Funtzionarioak bi urte gutxienez egon beharko du behin betiko lanpostuan hurrengo lehiaketetan parte hartu ahal izateko.

11. APLIKAGARRI DEN ARAUDIA.

Oinarri hauetan zehaztu ez den guztirako, meritu bidezko lehiaketan kontuan izango dira lege hauek: uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko legea; abuztuaren 2ko 30/1984 Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzko legea; apirilaren 12ko 7/2007 legea, Herri Langilearen Oinarrizko Estatutuari buruzkoa; Herri Administrazioetako Lanpostuak betetzeko Erregelamendu orokorra, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak onartua.

12. AURKARATZEAK

Deialdi hau, honen oinarriak eta bertatik eratorritako egintzak aurkara daitezke Herri Administrazioetako Araubide Juridiko eta Prozedurari buruzko legeak aurreikusitako moduan.

1 ERANSKINA

GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

SARRERAREN ERREGISTROA REGISTRO DE ENTRADA	Deialdiko lanpostua / Puesto al que opta
	GAOren data / Fecha BOG
	Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu ariketak? / ¿En qué lengua desea realizar las pruebas?



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Euskaraz / En Euskara <input type="checkbox"/>	Gaztelaniaz / En castellano <input type="checkbox"/>
-------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------

1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

1. deitura / 1er apellido	2. deitura / 2º apellido	Izena / Nombre
NAN / DNI	Kontaktuko telefonoa(k) / Teléfono(s) de contacto	Jaioteguna / Fecha de nacimiento
Bizilekua / Domicilio	Herria / Localidad	Posta-kodea / Código Postal
Probintzia / Provincia	Gidatzeko baimena / Permiso de conducir Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No <input type="checkbox"/> Mota / Clase _____	
Minusbaliatua bazara, zenbat denbora eta zer bitarteko berezi behar dituzu azterketak egiteko? (behar badituzu) / En caso de que sea minusválido, ¿qué tipo de adaptación de tiempo y de medios necesita para la realización de los ejercicios? (en el supuesto de que los necesite).		

2. FORMAZIOA / FORMACION

Deialdian eskaturiko titulu akademiko ofiziala / Título académico oficial exigido en la convocatoria.

TITULUA / TITULO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD DE EXPEDICIÓN	NOIZ LORTUA FECHA OBTENCIÓN

3. FORMAZIOA (MEREZIMENDUAK) / FORMACION (MÉRITOS)

Hautagaiak idatziz adierazten dituen datuak, merezimenduak kalifikatzeko (bestelako tituluak, ikastaroak, mintegiak, diplomak...) Datos que el aspirante hace constar para la valoración de méritos (otros títulos, cursos, seminarios, diplomas...)

TITULUA / TITULO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD DE EXPEDICIÓN	KREDITUAK EDO ORDU KOPURUA CREDITOS O Nº DE HORAS DE DURACION

4. ESPERIENZIA / EXPERIENCIA

Administrazio Publikoan edota enpresa pribatuan (merezimenduak kalifikatzeko) / En la Administración Pública y/o en la empresa privada (para la valoración de méritos).

NOIZ SARTUA FECHA INGRESO	NOIZ UTZIA FECHA CESE	ADMINISTRAZIOAREN edo ENPRESAREN izena	BETETAKO LANPOSTUA PUESTO de TRABAJO OCUPADO
------------------------------	--------------------------	-------------------------------------------	-------------------------------------------------



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

		Nombre de la ADMINISTRACIÓN o la EMPRESA	

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD:

- DNIaren fotokopia / Fotocopia del DNI
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko tituluaren fotokopia / Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Hizkuntzazko Eskakizunaren egiaztagiraren fotokopia (edo titulu baliokidearena) / Fotocopia del certificado del Perfil Lingüístico (o del título equivalente).

Behean sinatzen duen honek ESKATZEN DU onartua izan dadilaeskabide honetan adierazitako hautaprobetan, eta BAIEZTATZEN DU egiazkoak direla hemen adierazten dituen datuak eta betetzen dituela deialdiko Oinarrietan eskaturiko baldintzak eta eskakizunak. Horretarako, hitz ematen du jatorrizko agirien bidez egiaztatuko ditueala eskatzen dizkiotenean.	El abajo firmante SOLICITA ser admitido a las pruebas selectivas a la que se refiere la presente instancia y DECLARA que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones y los requisitos exigidos en las Bases de la convocatoria, comprometiéndose a acreditarlos fehacientemente en el momento en el que le sean requeridos
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Data / Fecha _____

Sinadura / Firma

IBARRA UDALEKO ALKATE-PRESIDENTEA.
SR.. ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE IBARRA

--	--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<p>Izaera pertsonaleko datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dugu eskatzaileak emandako datu pertsonal guztiak Ibarra Udalaren eskuzko fitxategi automatizatu batean sartuko direla.</p> <p>Sinatzaileak datuen egiazkotasuna bermatzen du eta Ibarra udalari emango dio edozein aldaketaren berri.</p> <p>Datu hauek sortu diren helbururako soilik erabiliko dira eta ez dira hirugarren batzuei utziko interesatuaren baimenik gabe, 15/1999 legeak edo beste lege batzuek jasotako kasuetan izan ezik.</p> <p>Eskatzaileak bere helbide elektronikoa ematean, Ibarra udalari baimena ematen dio komunikatzeko, agiriak trukatzeko eta jakinarazteko, eskaera honekin zerikusia duten administrazio egintza guztien balio sinesgarriekin.</p> <p>Horrez gain, interesatuak erabili ahalko du duen eskubidea Sartzeko, Zuzentzeko, Aurkaratzeko edo Uzteko. Horretarako gutun bat idatzi behar dio Ibarra Udalari (San Bartolome 2, 20.400 Ibarra) edo e-mail bat idatzi (ibarra@ibarrakoudala.net) eta gai hau jarri: "DBLG, ARCO eskubideak" eta NANren fotokopia erantsi, legeak dioena betez.</p>	<p>En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 sobre protección de datos de carácter personal, informamos que todos los datos de carácter personal, facilitados voluntariamente por la persona solicitante, serán incorporados a un fichero manual y automatizado, propiedad de Ayuntamiento de Ibarra.</p> <p>El firmante garantiza la veracidad de los datos aportados y se compromete a comunicar cualquier cambio que se produzca en los mismos a Ayuntamiento de Ibarra.</p> <p>Estos datos solo serán utilizados para las finalidades para las que son recabados y no serán cedidos a terceros sin consentimiento expreso del interesado, salvo en los supuestos contemplados en la Ley 15/1999 o por la aplicación de otras leyes que así lo regulen.</p> <p>La persona solicitante, al facilitar su correo electrónico, Autoriza al Ayuntamiento de Ibarra a su uso como canal de comunicación, intercambio de documentación y notificación con pleno valor fehaciente y probatorio de cuantos actos administrativos le afecte en relación a la presente solicitud.</p> <p>Así mismo, se informa que el interesado, puede ejercitar sus derechos de Acceso, Rectificación, Oposición y Cancelación dirigiendo una carta a Ayuntamiento de Ibarra, C/ San Bartolomé 2, 20400 IBARRA, enviando un correo electrónico a ibarra@ibarrakoudala.net, indicando como Asunto: "LOPD, Derechos ARCO", y adjuntando fotocopia de su DNI, tal y como indica la ley</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

3.2 PEOI LOREZAINEN LAN POLTSA BAT EGITEKO OINARRIEN ONARPENA

2013eko ekainaren 6ko 201/2013 alkate dekretu bidez onartu zen Udaleko Obra lantaldean sortzen ziren beharrei erantzuteko lan poltsa sortzea.

Lan poltsa hori peoiari dagozkion lanak egiteko eratu zen, bai lorezaintzarako, bai igeltseritzarako, baina esperientziak horrela erakutsi duelako, udaleko Obra lantaldean sortzen diren beharrei hobeto erantzuteko, egokiagoa ikusten da bi lan poltsa desberdin edukitzea. Hau da, bat igeltseroena eta bestea lorezainena.

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Udaleko Obra lantaldean lorezaintzan sortzen diren beharrei erantzuteko lan poltsa sortzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzea. (II eranskina).

BIGARRENA: Oinarri horiek Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitara ematea eta hamabost eguneko epean, argitara ematen denetik hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesdunek beren eskabidea aurkeztu ahal izango dute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

II ERANSKINA

IBARRAKO UDALEAN PEOI LOREZAINEN LAN POLTSA BAT EGITEKO **OINARRIAK**

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da lan poltsa bat egitea lehiaketa-oposizio bidez, Udaleko Lantaldean peoi igeltseroetan sortzen diren beharrei erantzuteko.

Lan jarduna urtero Ibarra Udalak dagokion zerbitzuarentzat erabakitzen duena izango, beti ere, lanpostuaren izaera eta behar espezifikoak aintzat hartuz.

Ordainsaria Udaltzaren 8 balorazio mailari dagokiona izango da.

2.- EGINKIZUNAK.

_Lorategiak, eremu berdeak, landa eremuak eta basoak mantendu .

-Lorezaintzako lanak: belarra moztu, sastrakak kendu eta kimatu, eta orohar mantentze lanak.

-Tratamendu fitosanitarioak egitea.

-Belazeko belarra moztu, hesiak konpondu.

_Larrak garbitu orokorrean eta herriko landa eremuetan.

— Lan anitzak egin, horrela: Zangak ireki eta itxi,

_ Margotze lanak, sarrailagintza eta soldadurarekin zerikusia dutenak.

— Muntaketa eta desmuntatze lanak burutu, bai hesi, bai seinale, zein oholta, eta abarrenak.

— Garraioko hainbat lan egin, zerbitzuan behar diren materialak kargatu eta deskargatze aldera.

— Lanean erabiltzen diren ibilgailu nahiz lanabesen oinarritzko mantentze lanak egitea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Zerbitzu arduradunarekin harremanak izan, koordinatzeko, lanerako behar dituen materialak eta ekoizpenak eskatu eta aginduak jasotzeko.
- Laneko Segurtasun eta Higieneko arauak betetzea.
- Hierarkian nagusi direnek, postuari dagozkion eginkizunak egoki betetzearren, eskatutako eta agindutako lanak egitea.

3. IZANGAIEN BETEBEHARRAK

Lehiaketa-oposizioan onartua izateko eta parte hartzeko hurrengo baldintza hauek bete behar dira:

a) Nazionalitate espainiarra edukitzea, edo beste edozein estatutakoa, baldin eta Europar Batasunak formalizatutako nazioarteko itunen baten arabera aplikaziozkoa bada langileen joan-etorri askea, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean zehaztutako eran.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

b) 16 urte beteta edukitzea.

c) Eskola Ziurtagiria edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerriko titulazioak badira, bere homologazioa egiaztatu beharko da agiri bidez.

d) B gidatzeko baimena edukitzea.

e) Lanpostuaren eginkizunak modu normalean burutzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez edukitzea

Atal hau egiaztatu beharko da azterketa bat eginez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

f) Euskararen lehen hizkuntza eskakizunari dagokion ezagutza maila izatea . bi modutara egiazta daiteke atal hau:

*Eskabidearekin batera apirilaren 15eko 86/1997 dekretuak, 41 art.an jasotzen dituen egiaztagiriren bat aurkeztuta.

*Hautaketa probetako bigarren ariketa baztertzaila eginda.

g) Diziplinako espediente bidez Estatuaren, erkidego autonomoen edo udal entitateen zerbitzutik baztertuta edota funtzio publikoan aritzeko desgaituta ez egotea.

h) Ez aritzea bateraezinezkoak diren jardueretan, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera, lanpostua hartzerakoan, baldin eta aukeratua izango balitz.

4. ESKAERAK.

Eskaerak eredu ofizial eta normalizatuan egin behar dira. Eredu hori Ibarra Udako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Bulegoan eskuratu daiteke eta oinarri hauen II Eranskinean dator (Eskaera orria).

Oposizio-lehiaketan onartua izateko eskaerak Ibarra Udako alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta baztertuak ez izateko ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

Izangaiek adierazi behar dute betetzen dituztela deialdiko 3. oinarrian ezarrita dauden baldintzak, beti ere, eskaerak aurkezteko azken eguna erreferentzia bezala hartuta, f) atalekoak izan ezik.

Era berean, adierazi behar dituzte lehiaketako fasean baloratzekoak diren merituen gaineko datuak, behar bezala egiaztatuta. Dena den, Epaimahai kalifikatzaileak agiri osagarriak eska ditzake egoki iritziz gero.

Gainera, eskaerari honakoak erantsi behar zaizkio:

1) NANren fotokopia edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzeko bestelako agiriren bat, baldin eta Europar Komunitateko estatuetako kide baldin badira



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 2) Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluarena.
- 3) Gida baimenaren fotokopia
- 4) Euskararen ezagutza maila egiaztatzen duen hizkuntza eskakizunaren agiria.
- 5) Gizarte Segurantzaren Laneko Bizitzaren ziurtagiria.
- 6) Laneko eskarmentua laneko kontratuen bitartez egiaztatuko da edota enpresak nahiz administrazioak eginiko ziurtagirien bidez. Horietan kontratuaren iraupena zehaztuko da eta egindako lanak, lanpostuaren zereginen arabera balorazioa egin ahal izateko. 5 eta 6 ataletako agiri horiek aurkeztu ezean ez da eskarmentua baloratuko.

Eskaera orriak, behar bezala beteta, Ibarra Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta, gehienez ere, hamabost (15) egun naturaleko epean.

Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira ondorengo xedapen honetan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 38.4 artikulua. Tolosako Udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta dagokion administrazioak datatu eta zigilatu behar ditu, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Egitateko okerrak edozein unetan konpondu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

5. IZANGAIEN ONARPENA .

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan, eta ahal dela, Udalaren web orrian (www.ibarra.eus) argitaratuko du. Era berean, ebazpen horretan, Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko dira.

Aipatutako zerrendatik kanpo gelditutako izangaiek 10 laneguneko epea izango dute baztertzeko arrazoi izan diren hutsuneak edo okerrak zuzentzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Erreklamaziorik ez baldin badago, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik balego, ordea, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean, eta jendaurrean jarriko da aurrekoaren modu berean.

Behin behineko zerrendarekin batera, oposizio fasearen lehen azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia emango da argitara. Epaimahaia osatuko duten kideen izendapena ere ebazpen berean emango da argitara. Ondorengo ariketak Epaimahai Kalifikatzaileak jakinaraziko ditu, Udaletxeko iragarki taulan erakutsiaz edo ezagutzera emateko egokiago iruditzen zaion moduan.

Epaimahai Kalifikatzaileak Ibarra Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko ditu jakinarazpenak eta oharrak, eta ahal dela, baita web orrian (www.ibarra.eus) ere.

6. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

Lehiaketa-oposizio libreko Epaimahai kalifikatzailea honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal arkitektoa edo berak izendatzen duen ordezkoa.

Kideak:

- Udal aparejadorea.

- Udaleko Brigadako arduraduna.

-Beste udal bateko brigadako arduraduna.

-Euskara teknikaria, euskara proba ebaluatzeko.

Idazkaria:

— Giza Baliabideetako teknikaria edo berak izendatzen duen ordezkoa.

Epaimahaia ezin izango da eratu lehendakaria eta idazkaria ez badira bertan, ezta Epaimahai erdia eta bat gehiago ez badaude ere.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Epaimahaia baliatu ahal izango da pertsona espezializatuez egokitzat jotzen dituen ariketetako probetan aholkularitza emateko. Aholkularitza hori nork bere espezialitate teknikoetan besterik ezin izango du eman.

Modu berean, Epaimahaia baliatu ahal izango da aholkularitza medikoaz edo osasun zentroren baten zerbitzuaz, 3.e) atalean datorren baldintza betetzen den kontrastatzeko.

Izangaiak ez baditu betetzen 3.e) ataleko baldintzak aukeraketak ez du ondoriorik izango eta jarduketak guztiak bertan behera geldituko dira.

Dena den baldintza hori egiaztatu ahalko da lan kontratua sinatu aurretik.

7. OPOSIZIO FASEKO ARIKETA .

- Lehen ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea: 20 puntu arte.

I Eranskineko gaien inguruan aukera anitzeko galde-sorta bati erantzutea. Gehienez 20 puntu baloratuko da eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Erantzun oker bakoitzeko 0,25 puntu kenduko dira.

- Bigarren ariketa: Baztertzaila

Euskararen lehen hizkuntza eskakizunari dagokion ezagutza maila egiaztatzeko ahozko proba izango da. Ariketa hau gai/ez gai baloratuko da eta euskara zerbitzuak egingo du . Probaren eguna eta ordua udaleko iragarki oholean eta web orrian (www.ibarra.eus) adieraziko da.

Ez dute proba hau egin beharrik izango apirilaren 15eko 86/1997 Errege Dekretuaren 32 art.ari jarraiki, bertan aurreikusitako moduren batean euskara ezagutza egiaztatzen bada.

-Hirugarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Proba praktiko bat edo gehiago egitea, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera, lanpostuari dagozkion eginkizunen gainean.

Proba hau egin ahal izango da saio bat edo gehiagotan, eta Epaimahaiak erabaki ahal izango du zati bakoitzaren balio espezifikoak, errespetatuz, edozein kasutan, proba bere osotasunean gainditzeko jarritako balorea.

Ariketa hau gehienez 40 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko, gutxienez 20 atera beharko dira.

8. LEHIAKETA FASEA .

Epaimahaiak hurrengo merituek baloratuko ditu, gehienez 21 punturekin, baldin eta alegatu izan badira eskaeran eta behar bezala egiaztatu badira, 4. oinarriko b) atalaren arabera, erreferentzia bezala hartuz beti eskaerak aurkezteko epearen azken eguna:

a) Lan eskarmentua: Administrazio Publikoan egindako lanak, lan kontratu baten bidez, peoi, peoi espezialista edo igeltsero lanetan, oinarri hauetan zehaztutako eginkizunak betez. Gehienez 6 puntu lortu ahal izango dira, hileko 0,15 puntu emanaz.

Zenbaketa egingo da lan egindako aldiak batuta, eta hilabete baino laburragoak kenduta. Hilabetetzat joko da 30 egun naturaleko aldia. Horrez gain, lanaldia osoa ez bada izan, dagokion koefizientea aplikatuko da.

b) Honako titulu hauek izatea edo horiek lortzeko eskubideak ordainduta izatea : Erdi Mailako Formakuntza zikloa lorezaintzan edo antzekoetan edo bestela AGA00108 lanbide egiaztatzea “ mintegi, lorategi edo lorezaintza zentroetan” edo AGA00208 lanbide egiaztatzea “ Lorategiak eta eremu berdeak instalatzea eta mantentzea”



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeko 20.4.a) artikuluari jarraiki, izangaien artean gaitasun berdina dutela iritziko da berdinketa gertatzen bada hautaketa prozesuaren bukaerako puntuazioan, hau da, proba guztiak egin eta baloratu direnean eta haiei merituak gehitu zaizkienean.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun ordena honako irizpide hauei jarraituz egingo da hurrenez hurren :

1. Emakumeen alde, beren ordezkaritza % 40tik beherakoa delako, salbuespen honekin: beste izangaiak arrazoiak edukitzea –sexu arrazoiengatik diskriminazioa izan gabe- neurri hau ez aplikatzeko, hain zuzen ere, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituen kolektibo batekoa delako.

2. Oposizioko fasean puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde.

3. Lehiaketako fasean puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde.

9. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Izangai bakoitzaren bukaerako kalifikazioa aterako da oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuak batuz. Horrek berak emango du behin betiko puntuazioaren hurrenkera.

Epaimahaiak iragarki taulan eta komunikabideetan jarriko du prozedura gainditu dutenen zerrenda puntuazio ordenaren arabera. Horiek lan-poltsa osatuko dute eta sor daitezkeen beharretarako deitu ahalko zaie, beti ere kategoria horietako lanpostuak aldi batez betetzeko.

Epaimahaiak akta Ibarra Udaleko organo eskudunaren eskuetan utziko du, onartuen proposamena egin dezan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hautaketa prozesua gainditu dutenek, bitartek izendapena edo lan kontratua egiteko unean deitzen zaienean, agiriok aurkeztu beharko dituzte:

a) Zinpeko aitortpena zeinak jasotzen duen ez dela inolako zigor espediente bidez administratziotik baztertua izan, ezta 53/1984 legeak eta 598/1985 Errege Dekretuak jasotako inolako bateraezintasun kasutan aurkitzen.

b) Deialdian eskatutako titulu eta egiaztagirien agiri jatorrizkoak edo behar bezala konpultsaturiko kopiak

Ez badute aurkezten dokumentazioa edo ez badute egiaztatzen betetzen dituztela exijitutako baldintzak, ezingo dira lan-poltsan sartu eta ezeztatuta geratuko dira jarduketa guztiak, eskabidea gezurtatzeagatik erantzukizuna baztertu gabe.

Edonola ere, deialdiko eskakizunak bitarteko izendapena egiteko edo aldi baterako lan kontraturako deitzeko unean bete beharko dira.

10. LAN-POLTSEN ERABILERA

Zerrendetako hurrenkera erabiliko da. Eskabidean ageri diren telefono zk. etara hiru dei egingo dira bi egunetan zehar eta ordu desberdinetan. Erantzunik jasoko ez balitz hurrengo pertsonari deituko zaio.

Kontratu/izendapenaren indarraldia amaitutakoan, lanean ari zirenak berriz ere lanerako prest geratuko dira jatorrizko zerrendan zuten hurrenkerarekin.

Udalak eginiko eskaintzari ezezkoa emango balio, zerrendaren amaierako postua beteko luke, baldin eta pisuzko arrazoirik ez duen izendapena edo kontratua ez onartzeko. Ez da pisuzko arrazoitzat joko oporrak izatea edo data horretan aisialdi arrazoiengatik kanpoan izatea, baldin eta izangaiak ez badu egiaztatzen lanpostua onartzeak sor diezaiokeen kalte ekonomikoa.

11. GORABEHERAK



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena izango du, batetik, ebazteko sortzen diren zalantzak eta, bestetik, beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, lehiaketa-oposizioa behar bezala gauzatzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaietan.

12. PROBA ALDIA

Proba aldia ezarriko da, izendapen edo kontratuaren iraupenaren arabera eta 15 eguneko edo hilabete batekoa izan daiteke. Aldi hori ez bada gainditzen lan kontratua bertan behera utziko da.

13. LAN-POLTSETAKO DATUEN BERRI EMATEA BESTE HERRI ADMINISTRAZIO BATZUEI.

Izaera pertsonaleko datuen babeserako legeriak ezarritakoari jarraiki, eta interesdunaren baimenarekin, Ibarra udaleko lan poltsa bateko datuak beste herri administrazio batzuei emango zaizkie, hala eskatuz gero, horiek aldi baterako kontratazioak egin ditzaten.

14. AURKARATZEAK

Deialdi honen, bere oinarrien eta horietatik edota Epaimahaiaren jokoeratik eratorritako administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango du interesdunak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoarenak, xedatzen dituen kasuetan eta moduan.

15. DATUEN BABESA

Hautaketa prozesuan aritu direnen datu pertsonalei, honako legeak aplikatuko zaizkie: Izaera Pertsonaleko Datuen babeserako 15/1999 lege Organikoa ; 994/1999 Errege Dekretua- datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko Erregelamendua onartzen duena-; otsailaren 25eko 2/2004 legea, titularitate publikodun izaera pertsonaleko datuen fitxategiei buruzkoa eta Datuen Babeserako Euskal Agentzia sortzeari buruzkoa eta garapeneko gainerako araudia.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

16. LAN-POLTSAREN INDARRALDIA

Lan-poltsa hau indarrean izango da beste lan-poltsa bat egin arte edo LEParen ondorioz sorturiko beste lan-poltsa bat egin arte.

GALDETEGIA

1. Nekazaritza arloko tresneria eta mekanikari buruzko ezagutza orokorrak. Lanabesak.
2. Landare motak: bizikorra, tapiz-landareak , igokariak.
3. Nutrizio gabeziak, izurriak eta gaixotasunak. Tratamendu biologikoak.
4. Lur-lantzea eta nekazaritza lanak.
5. Landaketa: landatzeko moduak. Kontzeptu orokorrak.
6. Zuhaitzak kimatzea: espezieak, formakuntza, mantentzea, egutegia.
7. Zuhaikek kimatzea eta hesiak moztea. Espezieak, garaia, egutegia.

ESKAERA ORRIA / INSTANCIA-SOLICITUD

Brigadan lorezain peoien lan poltsa osatzeko deialdia	Convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de peones jardineros para la Brigada de Obras
--------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu ariketak? / ¿En qué lengua desea realizar las pruebas?

Euskaraz / En Euskara

Gaztelaniaz / En castellano



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

1. deitura / 1er apellido	2. deitura / 2º apellido	Izena / Nombre
NAN / DNI	Telefonoa(k) / Teléfono(s)	Jaioteguna / Fecha de nacimiento
Bizilekua / Domicilio	Herria / Localidad	Posta-kodea / Código Postal
Probintzia / Provincia	Helbide elektronikoa / Dirección de correo electrónico:	
Probak egiteko egokitzapen teknikorik behar al duzu? Zein? / ¿Necesita alguna adaptación técnica para realizar las pruebas?		

2. FORMAZIOA / FORMACION

Deialdian eskaturiko titulu akademiko ofiziala / Título académico oficial exigido en la convocatoria.

TITULUA / TITULO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD DE EXPEDICIÓN	NOIZ LORTUA FECHA OBTENCIÓN

3. ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA

Administrazio Publikoan edota enpresa pribatuan (merezimenduak kalifikatzeko) / En la Administración Pública y/o en la empresa privada (para la valoración de méritos).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

NOIZ SARTUA FECHA INGRESO	NOIZ UTZIA FECHA CESE	ADMINISTRAZIOAREN edo ENPRESAREN izena Nombre de la ADMINISTRACIÓN o la EMPRESA	BETETAKO LANPOSTUA PUESTO de TRABAJO OCUPADO

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD:

EZINBESTEKOAK / OBLIGATORIOS

- NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko tituluaren fotokopia / Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Gidatzeko baimenaren fotokopia (B) / Fotocopia del carnet de conducir tipo B

EZINBESTEKOA LAN ESKARMENTUA EGIAZTATZEKO / OBLIGATORIO PARA LA VALORACION DE LA EXPERIENCIA LABORAL

- Laneko kontratuak eta/edo enpresaren ziurtagiria) / Contratos de trabajo y/o certificados de las empresas

KASUA BADA / EN SU CASO



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hizkuntza Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo titulu baliokidearena) / Fotocopia del certificado del Perfil Lingüístico (o del título equivalente).

Ibarrako udalari baimena ematen diot nire datuak beste herri administrazioei emateko balizko kontratazioetarako. Autorizo al Ayuntamiento de Ibarra para que mis datos puedan ser comunicados a otras Administraciones Públicas que los demanden, a efectos de posibles contrataciones.

BAI / SI

EZ / NO

Behean sinatzen duen honek ESKATZEN DU onartua izan dadila eskabide honetan adierazitako hautaprotetan, eta BAIEZTATZEN DU egiazkoak direla hemen adierazten dituen datuak eta betetzen dituela deialdiko Oinarrietan eskaturiko baldintzak eta eskakizunak. Horretarako, hitz ematen du jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dituela eskatzen dizkiotenean.	El/la abajo firmante SOLICITA ser admitido/a a las pruebas selectivas a la que se refiere la presente instancia y DECLARA que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones y los requisitos exigidos en las Bases de la convocatoria, comprometiéndose a acreditarlos fehacientemente en el momento en el que le sean requeridos
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Data / Fecha _____

Sinadura / Firma

IBARRA UDALEKO ALKATE-UDALBURUA.
SR. ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE IBARRA

.Ibarrako Udala baimendua geratzen da dokumentu honetan jasotako datu pertsonalei tratamendu automatizatua emateko, eta konpromisoa hartzen du Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 13/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko. Interesatuek datuak eskuratzeko, kantzelatzeke, zuzentzeko eta	El Ayuntamiento de Ibarra queda autorizado al tratamiento de los datos personales contenidos en este documento, comprometiéndose al cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 13/1999, sobre Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercer los derechos de acceso,
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

oposatze eskubideak baliatu ahalko dituzte Ibarra Udalaren aurrean.	cancelación, rectificación y oposición ante el Ayuntamiento de Ibarra.
---------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------

3.3 PEOI IGELTSEROEN LAN POLTSA BAT EGITEKO OINARRIEN ONARPENA

2013eko ekainaren 6ko 201/2013 alkate dekretu bidez onartu zen Udaleko Obra lantaldean sortzen ziren beharrei erantzuteko lan poltsa sortzea.

Lan poltsa hori peoiari dagozkion lanak egiteko eratu zen, bai lorezaintzarako, bai igeltseritarako, baina esperientziak horrela erakutsi duelako, udaleko Obra lantaldean sortzen diren beharrei hobeto erantzuteko, egokiagoa ikusten da bi lan poltsa desberdin edukitzea. Hau da, bat igeltseroena eta bestea lorezainena.

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Udaleko Obra lan taldea igeltseritzan sortzen diren beharrei erantzuteko lan poltsa sortzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzea. (III eranskina).

BIGARRENA: Oinarri horiek Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitara ematea eta hamabost eguneko epean, argitara ematen denetik hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesdunek beren eskabidea aurkeztu ahal izango dute.

3.4 ORDU KONTROLARI ETA PRESENTZIARI BURUZKO ARAUDI BERRIAREN INPLEMENTAZIOARI BURUZKO OHARRAK

2015eko abuztuaren 7ko 227/2015 alkate dekretu bidez onartu ziren ordu kontrolari eta lan tokian izan beharreko presentziari buruzko hainbat arau.

Araudi honen osagarri moduan,

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Familiarteko baten ospitaleratzeagatik hartu beharreko lizentzia egunak honako epean hartu beharko dira:

- a) Familiartekoa ospitalean dagoen bitartean, edo/eta
- b) Alta eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 3 laneguneko epean.

Alta eman, eta ondorengo 3 laneguneko epean hartzen badira, alta noiz izan den ziurtatzen duen ospitaleko agiria aurkeztu beharko da.

3.5 NEKANE AZURMENDI ETXEGARAY-REN ESKAERA (2012KO APARTEKO SOLDATAREN ORDAINKETA ETA 2012 ETA 2013KO SOLDATAREN IGOERA)

Ikusi da Nekane Azurmendik 2015eko irailaren 15ean egin zuen eskaera

Eskatzen du onartzea 2012ko abenduko aparteko ordainsari osoa, eta ordaintzea %75,96, uztaileko nominan ordaindu baitzizaion %24,04. Baita ere eskatzen du 2012ko eta 2013ko soldataren %2,9 igoerari dagokion ordainsaria.

Ikusi da udal idazkariak 2015eko irailaren 29an egindako 13/2015 txostena

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ordaintzea Nekane Azurmendiri 2012ko aparteko ordainsariaren %26,23, hau da, 48 egunei dagokiona, irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege-Dekretuak dioenaren arabera.

BIGARRENA: Ez ordaintzea 2012ko eta 2013ko soldataren %2,9 igoerari dagokion ordainsaria, 2015eko Estatuko Aurrekontuaren Lege Orokorrak debekatu egiten duelako langileen ordainsariak igotzea.

HIRUGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau Nekane Azurmendiri eta Kontuhartzaitzari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.6 M^a ANGELES GANZARAIN ILLUMBE-REN ESKAERA (2012KO APARTEKO SOLDATAREN ORDAINKETA ETA 2012 ETA 2013KO SOLDATAREN IGOERA)

Ikusi da M^a Angeles Ganzarainek 2015eko irailaren 21ean egin zuen eskaera

Eskatzen du onartzea 2012ko abenduko aparteko ordainsari osoa, eta ordaintzea %75,96, uztaileko nominan ordaindu baitzizaion %24,04. Baita ere eskatzen du 2012ko eta 2013ko soldataren %2,9 igoerari dagokion ordainsaria.

Ikusi da udal idazkariak 2015eko irailaren 29an egindako 14/2015 txostena

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ordaintzea M^a Angeles Ganzarain-i 2012ko aparteko ordainsariaren %26,23, hau da, 48 egunei dagokiona, irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege-Dekretuak dioenaren arabera.

BIGARRENA: Ez ordaintzea 2012ko eta 2013ko soldataren %2,9 igoerari dagokion ordainsaria, 2015eko Estatuko Aurrekontuaren Lege Orokorrak debekatu egiten duelako langileen ordainsariak igotzea.

HIRUGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau M^a Angeles Ganzarain-i eta Kontuhartzaitzari.

3.7. JESUS OLAZABAL MARTINEZ-EN ESKAERA (SALDO NEGATIBOA KONPENTSATZEA)

Ikusi da Jesus Olazabal Martinez-ek 2015eko abuztuaren 31n egindako eskaera.

Bertan azaltzen du bere anaia eta aitagarrebak aurtengo otsailean ingresatuta egon zirela, aitagarrebaren kasuan bi hilabeteko ospitalizazioa izan zela. Ez zituela Udalhitzek ematen dituen egunak hartu, eta horren ordez bere laneko ordu kopurua murrizten joan zela, eta hori dela orain daukan saldo negatiboaren arrazoia.

Hori horrela, eskatzen du bere familiako gaixotasunengatik asistentzia orduak konpentsatzea gaur egun duen saldo negatiboa.

2015eko urriaren 2an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ezeztea Jesus Olazabal Martinez-ek egin duen eskaera, eta ez konpentsatzea daukan saldo negatiboa bere familiakoen gaixotasunengatik hartu ez zituen orduekin, ospitaleratzeagatik zegozkion egunak, finalistak direnez, gertaera eman zen egunetan hartu behar zirelako.

HIRUGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau Jesus Olazabal Martinez-i.

4.- 2015 URTERAKO KIROLA ARLOAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRIEN ONARPENA

Kirol teknikariak 2015 urtean emango diren diru-laguntzen oinarriak Kirol Batzorden aurkeztu zituen.

Idazkariak jakinarazten du kontutan izan behar dela Diru-laguntzen plana egun deuseztatu egin dutela Auzitegiaren sententziak esan bezala. Ondorioz Plan berria gauzatu arte diru-laguntza hauetan prozeduran akatsa eman daitekeela kontutan izan behar dugula. Bestalde Plana gauzatzeko denbora beharrezkoa dela eta horretara jarriko direla urgentziaz.

2015eko urriaren 8an eginiko Kiroletako Batzordearen irizpena kontuan izanik

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea 2015 urterako Kirol-arloko diru-laguntzen oinarriak

BIGARRENGOA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea (V.eranskina)

V. ERANSKINA

2015EAN KIROL ARLOAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 2.artikuluan dio kirola dela interes publikoko gizarte-jarduera, pertsonak bete-beteen prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta

281



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

gizartea ondo izateko lagungarria. Era berean, artikuluko horrek berak Aginte publikoak, beren eskumen-esparruen barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzera gonbidatzen ditu, horretarako sistema osatzen duten sektore eta jarduera desberdinen sustapena helburu duen kirol-politika garatuz.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta berori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduak xedatzen dute tokiko udal diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, edo diru-laguntzen ordenantza nagusi baten bidez, edo diru-laguntza mota ezberdinetarako ordenantza espezifikoaren bidez.

2013ko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra arautuko ditu diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.

Testuinguru horretan, Ibarra Udalak legeak xedatzen dituen sustapen-ekintzak gisa honetako jarduerak egiten dituzten erakundeei eginiko funts transferentzia bidez bideratzen ari da, kirol munduaren barruan hainbat tokitara iritsiz. Sustapen ekintza horiek aurrera eramateko, kasu batzuetan, lankidetzaz hitzarmenak sinatzen dira eta horietan jasotzen dira helburu zehatzak lortzeko aldeek beren gain hartu behar dituzten betebeharrak. Beste batzuetan, berriz, sustapena erakunde laguntzaileei ematen zaizkien diru-laguntza bidez gauzatzen da.

Diru-laguntzak iragarki, norgehiagoka, objetibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzerakoan.

1. Xedea

Oinarri hauen helburua da 2015 urtean Ibarra kirol arloan emango diren eta 4. artikuluan aipatzen diren diru-laguntzen emakida arautzeko oinarri zehatzak ezartzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bertan jasotako arauak arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden gainerako xedapenek ere (Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta berori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduak).

2. Prozedura

Oinarri hauetako diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira, betiere printzipio hauek errespetatuta: publikitate, objetibotasun eta gardentasun, berdintasun, diskriminaziorik eza. Eskumeneko organoak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da deialdia.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi hau aurrera eramateko ezarritako diru-kopurua 38.000,00 euro izango da. Kopuru hori da 430.341.000,00 2015 partidaren kargatuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio-irizpideetan lortutako puntuazioa. Zenbateko hori balorazio irizpideen arabera lortutako puntuen arabera izango da, betiere interesatuak eskatutako diru kopurua gaindituko ez duelarik.

Zenbateko hori zehatza izango da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, diru-laguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste diru-laguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak, aldez aurretik justifikazio-txostena egingo balu, diru-laguntzen zenbateko osoaren hainbanaketa egin dezake onuradunen artean.

4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke udalerrian garatuko diren kirol jarduera edo programak, bai eta xede-talde gisa ibarrako herritarrak dituztenak ere, honako modalitateak ezberdintzen direlarik:

- kirol jarduerak: urteko programa
- kirol jarduerak: jarduera zehatzak

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarrako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege- edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak edo pertsonak jardueraren antolakuntzak dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten beharrezko aseguru-polizak itunduz.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza hauetatik kanpo geldituko dira kirol entitate eskatzaileak zuzenean antolatu ez dituen jarduera edo proiektuak.

5. Onuradunak

Arau hauetan jasotako diru-laguntzak eska ditzakete Ibarra udalerrian egoitza edo ordezkari iraukorra duten irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoek, baldin eta 4. art.an jasotako jardura programaren bat garatu nahi badute eta oinarri hauetako baldintzak nahiz diru-laguntzei buruzko araudiak ezarritakoak betetzen badituzte.

Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte legez erata eta Eusko Jaurlaritzako kirol elkarte-erregistroan inskribatuta dauden Ibarra errotutako eta deialdi honetako jardueretara eskainitako erakundeak. Horrez gain, diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan xedatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Pertsona fisiko edo juridikoek osaturiko taldeek, publiko nahiz pribatu izan, eta izaera juridikorik ez badute, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa aginpiderekin, aplikatuko baitzaio 38/2003 legearen 11. artikulua.
- b) 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan tipifikatutako diru-laguntzaren itzulketa onartzeko edo kitzatzeko preskripzio-epea amaitu arte taldea ez desegiteko baldintza beteko dutela adierazten duen zinpeko aitortza.

6. Baztertuak

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

- a) Ebazpen irmo bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eskubidea galdu dutenak.
- b) Konkurtso-deklarazioa eskatu dutenek, edozein prozeduretan kaudimengabe aitortua izan direnak, konkurtso-deklarazioan jada daudenak, esku-jartze judizialera lotutakoak edo konkurtso sailkapen sententzian ezarritako ez gaitasun epea amaitu gabe Konkurtso Legearen arabera ez gaitutako pertsonak
- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legeko ordezkariak dutenak sartuta daudenean kontratatutako bateraezintasun kasuren



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

batean, bakoitzean aplikaziokoa den legeria espezifikoa arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautetsi karguren bat izatea.

e) Egungo xedapenek ezarritako zerga edo gizarte segurantzari buruzkoak betebeharrak ez betetzea.

f) Zerga egoitza erregelamenduz paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurralde batean dagoenean.

g) Udal honek emandako diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.

h) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrean egonik, ordainketa eginda ez dutenek (diru-laguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa)

i) Diru-laguntzen Lege Orokorren edo Zergei buruzko Legearen arabera, diru-laguntzak lortzeko aukera ebazpen irmo bidez galduta dutenek.

j) Entitatearen ordezkariaren baten lege-bateraezintasuna Udaleko langile edo hautetsiekin.

k) Era berean, ezingo da diru-laguntzarik eman, Ibarra Udalarekin dituzten zorrenatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.

l) Beren jardueraren izaera sozial edo pertsonalaren bitartez, diskriminazioen bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak

7. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

a) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarra udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauaren arabera, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

32.1.1. Ibarra Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

32.1.2. Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

- b) Helburua betetzea, egitasmoa burutzea, jarduera egitea edo diru-laguntza emateko arrazoiaren arabera jokatzea.
- c) Udalaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.
- d) Diru-laguntza ematen duen organoak egingo dituen egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontrol-organoez, nazionalen nahiz komunitarioez, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.
- e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.
- f) Eskura izango ditu honakoak: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakioken merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.
- g) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.
- h) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarra udalaren diru-laguntza jasotzen duten programa, jarduera edo ekintzen finantzazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.
- i) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero jasotako dirua itzuli egin beharko du.
- j) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.
- k) Edozein motatako zerga obligazio (tokikoak zein gizarte segurantzakoak) eta eskatzailearen nortasuna egiaztatu beharko dira, diru-laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan, eta erabakitze proposamena egin baino lehen, gainerako kasuetan.

Halere, onuradunari urte osoan emandako diru-laguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortpena aurkeztu behar du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru-laguntza arautzen duten gainerako arauekin.

l) Dagokion publizitatearen bidez, diru-laguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarra Udalak finantzatzen dituela egoki zabaltea, betiere betebeharrak hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean eskatzen bada.

m) Jasotako funtsak itzultzea, diru-laguntzen ordenantza orokorrean eskatzen den kasuetan.

j) Genero ikuspegia txertatzea diruz lagundutako proiektu edo jardueretan.

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuak emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuen pilaketa kasuetan, diru-laguntzen baturak ezingo du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu. Horrelakorik gertatuz gero, aipatu kopurua ez gainditzeko, ematekoa den diru-laguntza murriztuko da Oinarri hauen kontura.

9. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzak jasotzeko eskabideak, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko erregistroan (San Bartolome plaza, 2, 20.400 Ibarra).

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira:

1. Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarten eta Entitateen Erregistro Orokorrean inskribatu izanaren ziurtagiria, edo, 5.oinarriko dokumentazioa.
2. Kirol arloko erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen (I.F.K.) fotokopia eta erakundearen ardura duen pertsonaren NAREN fotokopia.
3. Diru-laguntza eskaera normalizatua, behar bezala bete, honekin batera doan ereduaren arabera.
4. Elkarte eskatzaileak irekitako kontu korrontearen titularitatea ziurtatzen duen Banketxe edo Aurrezki Kutxaren agiria.
5. Beste ekarpen edo diru-laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6. Diru-laguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko eranskin bat behar bezala beteta.
7. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak bete izana egiaztatzen duen agiria (edo, hala badagokio, 4. Eranskina, dagokion moduan beteta).
8. 2014. urteko jardueretako kirolarien kopurua eta haien izenen zerrenda, bertan adieraziz bakoitza non erroldatua dagoen.
9. Erakundearen estatutuak.
10. Zinpeko aitortpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekutan sartuta ez dagoela egiaztatzeko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3.artikuluetan zehaztutakoak izango dira.
11. Jardueraren memoria

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Behin eskaera onartua dagoenean, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egiten da diru-laguntza hori ematea arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.

10. Baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza norgehiagoketa bidez emango da; horrek esan nahi du, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duten diru-laguntza kopuru mugatu bat hautatuko dela, kasu bakoitzean zehaztutako irizpideen arabera.

Honako formulazioa erabiliko da diru-laguntzak emateko orduan:

1. $A / B = C$
 - a. A: balorazio irizpideekin lorturiko puntuazio osoa
 - b. B: aurreikusirik dagoen aurrekontua (urteko programa 35.300 euro eta jarduera zehazetan 2.700 euro)
 - c. C: puntuen balioa
2. $A \times C =$ emango den diru-laguntzaren kopurua



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntzak esleitzerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira baldin eta egindako eskarian agertzen badira:	
Kirol Elkarte Federatuak	
1. Federazioetako kirol-lizentziak.	
* Federatuen lizentzia bakoitzeko	1 p.
* Pilota, Herri-kirol, Arraun, Sokatira-lizentzia bakoitzeko	1,5 p.
* Emakume federatuen lizentzia bakoitzeko	1,5 p.
2. Taldearen lehiaketa esparruaren arabera.	
* Gipuzkoa mailan	5 p.
* Autonomia erkidego mailan	10 p.
* Estatu mailan	15 p.
* Euskal Herriko zazpi probintzietan	20 p.
3. Bertako kirola	20 p.
4. Kide-kopuruagatik	
* 30 kide baino gutxiago	0 p.
* 30 eta 60 kide artean	10 p.
* 60 kide baino gehiago	20 p.
5. Bazkideen kuotengatik	
* Hilean 6€ baino gutxiago	0 p.
* Hilean 7-12€ artean	10 p.
* Hilean 12 € baino gehiago	20 p.
6. Aurrekontu mailako irizpideak	
* 10.000-30.000 euro arteko aurrekontua	15 p.
* 6.000-10.000 euro arteko aurrekontua	10 p.
* 6.000 euro baino aurrekontu txikiagoa	5 p.
7. Aurreko ekitaldiko balantzean guztira agertzen diren diru-sarreratik entitate pribatu edo enpresetako jatorria duten (babesleak edo laguntzak) diru-sarreraren bolumena kontuan izanda.	
* Diru-sarreraren %10 arte	5 p.
* Diru-sarreraren %11 eta %30 artean	10 p.
* Diru-sarreraren %31 eta %50 artean	15 p.
* Diru-sarreraren %50 baina gehiago	20 p.
Ez badute aurreko ekitaldiko balantzea aurkezten ezin zaie atal honetako baremoa aplikatu.	
8. Herritar guztiei zuzendutako aisialdiko kirol-jarduerak antolatzeagatik.	
* Puntualak	5 p.
* Urtero	10 p.
9. Kirolariak Ibarraoak izateagatik.	
* Ibarraoak %100	20 p.
* Ibarraoak %99-%85	15 p.
* Ibarraoak %84-%70	10 p.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

* Ibarraoak %69 baina gutxiago	5 p.
10. Euskararen hizkuntz erabilera	
* Euskara hutsean	10 p.
* Euskara eta beste hizkuntzak tartekatzea	5 p.
* Beste hizkuntzak	0 p.
11. Ibarra jokatzen diren jardunaldiengatik	
* 0-1 jardunaldi	0 p.
* 1-5 jardunaldi	10p.
* 5-20 jardunaldi	20 p.
12. Lizentzia indarrean duten kirol titulazioengatik	
* Oinarrizko entrenatzaile/monitore/epaile	1 p.
* Erdi mailako entrenatzaile/ magisteritza espezializatu/kirol eta jarduera fisikoko teknikoak	3 p.
* Goi mailako entrenatzailea /jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan teknikoak	5 p.
* Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziatua, maisutasunez	10 p.
Puntuazio bakoitzari %50 gehituko zaio entrenatzaileak emakumeak badira.	
13. Herriko eragile edo taldeekin hitzarmenak izatea	
	30 p.
14. Haur, nerabe eta gazteekin oinarrizko kirola lantzea	
* 0-10 kide	10 p.
* 11-20 kide	20 p.
* 21 kide baino gehiago	30 p.
Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko izendatutako kreditua 35.300,00€koa da. Kreditu hau 430.341.00.00 2015 aurrekontu atalari, dagokio.	
Ekitaldi Bereziak	
1. Gertaeraren jarraikortasuna	
* 50 urtetik gora.	15 p.
* 15-49 urte artean.	10 p.
* 6-14 urte artean.	5 p.
* 5 urtetik behera.	0 p.
2. Gertaeraren egun kopurua	
* 3 egunetik gora.	15 p.
* 2/3 egun	10 p.
* Egun 1	5 p.
3. Parte-hartzaile kopurua	
* 500-2.500 parte-hartzaile artean	20 p.
* 250-500 parte-hartzaile artean	15 p.
* 100-250 parte-hartzaile artean	10 p.
* 50-100 parte-hartzaile artean	5 p.
* 50tik behera	1 p.
4. Genero berdintasuna sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak	
	10 p.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5. Bertako kirola	20 p.
6. Aurrekontu mailako irizpideak	
* 10.000-30.000 euro arteko aurrekontua	15 p.
* 6.000-10.000 euro arteko aurrekontua	10 p.
* 6.000 euro baino aurrekontu txikiagoa	5 p.
7. Aurreko ekitaldiko balantzean guztira agertzen diren diru-sarreratik entitate pribatu edo enpresetako jatorria duten (babesleak edo laguntzak) diru-sarreraren bolumena kontuan izanda.	
* Diru-sarreraren %10 arte	5 p.
* Diru-sarreraren %11 eta %30 artean	15 p.
* Diru-sarreraren %31 eta %50 artean	30 p.
* Diru-sarreraren %50 baina gehiago	50 p.
Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko izendatutako kreditua 2.700,00 €koa da. Kreditu hau 430.341.00.00 2015 aurrekontu atalari, dagokio.	

Diruz laguntzekoak izan daitezkeen beste proposamen batzuen programarekin bat ez datozen aldetik, izaera soileko diren proiektuak edo elkarteak aurkezten direnean, irizpide nagusia izango da diru-laguntza ematea, ziurtatuz programa edo proiektua irizpide hauen arabera gauzatuko dela: Aurrekontuen bideragarritasuna, jarduerarako aurreikusitako defizita, eta hala badagokio, aurreko urteetan jarduera bererako emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Bide egokiena dela baloratzen den kasuetan, Udalak hitzarmen modalitatea ezarri ahal izango du interesatuekin. Hitzarmen horrek, entitatearen ordain gisa jasoko ditu urteko programak sustatzeko eta zabaltzeko eremuetako ekintza zehatzak garatzea eta gauzatzea.

11. Prozeduraren instrukzioa.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako organo eskuduna Kirol Batzordea izango da.

Organo horrek dagokion organo eskudunari aurkeztuko dio proposamena. Erabakitzeko proposamen horrek honako hauek jaso behar ditu:

- Eskaeren ebaluazioa.
- Diru-laguntza jasotzeko proposatzen den eskatzaileen zerrenda
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Tokiko Gobernu Batzarra izango da prozedura hori erabakitzeko eskumena izango duen organoa.

Organo instruktoreak eska diezaieke interesdunei behar adina argibide eta informazio nahiz agiri prozedura izapidetzeko eta, oro har, ebazpena eman behar deneko datuak egiaztatzeko beharrezko direnak.

Diru-laguntza norgehiagoka bidez emango da eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, laguntza kopuru bat erabakiko da, diruz lagundu diren jarduketan kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

12. Ebazpena

Prozedura hori erabakitzeke eskumena izango duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da. Epea sei hilabetekoa izango da, deialdiaren iragarkiaren egunetik kontatzen hasita, baldin eta organoak berak data atzeratzen ez badu aurrekontu bitartekoak direla eta.

Gehienezko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorrak 25.5 art.an ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.

Ebazpena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arrazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Diru-laguntzaren ebazpenak alderdi hauek jasoko ditu:

- * Onuradunaren identifikazio datuak
- * Diru-laguntzaren xedea.
- * Emandako gehienezko zenbatekoa.
- * Diruz lagundutako jarduera burutzeko eta zuritzeko epea.

13. Diru-laguntzaren zuriketa.

Diru-laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- a) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko eta diruz lagundutako jarduera burutzeko bideratu dela.
- b) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharrak aitortzeko eta kitapenerako.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako diru-laguntzak zuritzeko honako agiriok aurkeztuko dira:

1. Egindako jardueraren edo programaren azalpen-memoria, zeinek gutxienez, atal hauek izango ditu:
 - a. Programaren edo proiektuaren izena.
 - b. Diru-laguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- c. Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.
 - d. Proiektua edo jardueraren garapenean egindako aldaketak.
 - e. Finantza baliabideen zerrenda: Diru-laguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita diru funts propioekin edo beste diru-laguntza batekin finantzatutako beste jarduera batzuenak ere.
 - f. Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzaileen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.
 - g. Ondorioak.
2. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:
- a. Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.
 - b. Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreraren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituen. Gastuen zerrendak hau jasoko du:
 - i. Hartzekodunaren identifikazioa.
 - ii. Dokumentuaren identifikazioa.
 - iii. Zenbatekoa.
 - iv. Igorpen data.
 - v. Ordainketa data.
 - vi. Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuari itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez. Erosketa tiketak edo ordainagiriak onartuko dira, 20,00 € baino txikiagoak badira eta guztira jasotako diru-laguntzaren %10 gainditzen ez bada.
 - c. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d. Fakturak ematen dituen erakunde bat BEZetik salbuetsita badago, salbuespen hori dagoela berresten duen erakunde eskudunak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.
 - e. Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Lan kontratuen kopiak, hartzaileak sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiriak.
 - f. Hartzekodunen ordainketa ziurtagiria banku zordunketa bidez egin beharko da, modu zuzenean sinatutako "jaso agiria", edo aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren beste dokumentu-ziurtagiri bat.
3. Programa edo jardueraren propagandarako egin diren kartelen kopiak eta hizkuntzaren erabilera justifikatzen duen dokumenturen bat.
 4. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalaren nahiz Foru Ogasunaren zergak kitatuta dituela egiaztatzen duen agiria.

Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako diru-laguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

14. Diru-laguntza justifikatzeko epea.

14.1.- Urteko programazioa: 2016ko otsailaren 14a.

14.2.- Ekintza puntualak: Ekintza gauzatu eta 45 egun naturaleko epean justifikatuko da.

2014ko lehiaketaren ondorioz jaso beharrekoa ez da aurreko urtekoa zuritu arte jasoko.

15. Diru-laguntzaren ordainketa.

Ordainketa egingo da onuradunak egiaztatzen duenean diru-laguntza eman zitzaioneko helburua bete dela eta jarduera burutu izana eta gastua egin izana justifikatzen duenean.

Ez da ordainketarik egingo onuraduna zerga betebeharretan eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean ez bada, edo zorduna bada eta ebazpen bidez itzulketa agindu bada.

Ordainketa zatikatuen bidez ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak burutzen diren neurrian eta aurkeztutako justifikazioaren arabera zenbatekoa emango da oinarri hauei jarraiki.

15.1.- Urteko programazioa:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru-laguntzaren %60 ordainduko zaio. Gainerako %40 jarduera edo egitasmoaren justifikazioari onespina ematen zaionean ordainduko zaio.

15.2.- Ekintza puntualak.

- a) Hiru mila eurotik beherako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Diru-laguntzaren %100 ekintza gauzatu baino astebete lehenago ordainduko zaio.
- b) Hiru mila eurotik gorako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Ekintza gauzatu baino astebete lehenago diru-laguntzaren %60 ordainduko zaio. Gainerako %40 ekintzaren justifikazioari onespina ematen zaionean ordainduko zaio.

16. Ordainketa aurrerakina

Diru-laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru-laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketei loturiko finantzazio beharretarako.

17. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri buruzko publizitatean, beti Ibarra Udalaren lankidetzara adierazi beharko da.

Propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko da.

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartuko dute emakumeentzat iraingarria edo baztertzaila izan daitekeen propagandarik ez erabiltzeko.

18. Kontrol eta jarraipena.

Diru-laguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Diru-laguntzen finantza kontrola Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

19. Emandako diru-laguntzen aldaketak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gaintzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

20. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

21. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 50. artikuluan ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena

22. Interpretazioa.

Oinarri hauetan hutsuneak egonez gero, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren eta azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren araututakoa kontuan izango da.

23. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

5.- 2015EKO URRIAREN 7AN KULTURA BATZORDEAK HARTURIKO ERABAKIEN INGURUKO ERABAKIAK

5.1 GAZTEMATIKA ZERBITZUA, AZKUEKO LOKALAREN HORNIKUNTZA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gaztematika sistemaren barruan Aldundiarekin hitzartutakoaren arabera, maiatzean Ibarra PSZ (Haur, nerabe eta gazteen Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua) martxan jarri zuen Udalak. Zerbitzuaren kontratazioaren esleipena Kalekka enpresari egin zitzaion, eta ordutik, 2 hezitzaile dihardute lanean. Herriko errealitatearen inguruan egindako diagnostikoa aurkeztu berri dute, eta hemendik aurrera, zerbitzuaren inplementaziorako plangintza egingo da. Abendura bitartean nerabeei emango zaie lehentasuna.

Zerbitzua Azkue auzoan lekutzen den ludoteka izandako lokalean gauzatuko da. Bertan zeuden materialen ikuskapena, bazterketa eta garbiketa egin ostean, lokala modu egokian hornitzeko beharra ikusi da. Horretarako, Udala Erosketa Zentraleko esleipena duen Montte enpresarekin harremanetan jarri da eta lokalaren hornikuntzarako proiektu integrala eskatu dio.

Udalak lokalaren hornikuntzarako aurrekontuko **1.0000.625.337.20.01 2015 “Gaztematikako altzariak”** kontu-sailean aurreikusita duen diru-horniketa nahikoa ez dela ikusirik, Alkateak Kontu-Hartzailearen onepenarekin, Udalak egingo duen hurrengo kreditu aldaketan beharrezkoa den diru-horniketa egingo delako konpromisoa hartuz,

2015eko urriaren 7an eginiko Kultura Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Ibarra PSZ zerbitzuaren egoitza izango den Azkueko lokalaren hornikuntza egitea.

BIGARRENGOA: Onartzea Montte S.L. enpresak aurkeztutako proiektua eta aurrekontua

HIRUGARRENGOA: Hornikuntzari dagokion 10.036,12 euroko gastua (BEZ barne), 1.0000.625.337.20.01 2015 “Gaztematikako altzariak” kontu-sailean egozte, dagokion kreditu aldaketa egingo delarik.

LAUGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi Kontuhartzailletza sailari

5.2 ESPEKTAKULU PUBLIKOAK ETA JOLAS JARDUERAK: LEGEA ETA UDAL ORDENANTZA

Kultura eta Gazteria teknikariak 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, Jende-aurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen, eta horiek burutzeko eska daitezkeen erantzun zibileko aseguruak arautzen dituen 44/2014 Dekretua aurkezten die Batzordekideei. Era berean, 4/1995 Legearen tokiko garapena den 2001eko irailaren 28an 187 GAOn argitaratu zen Ikuskizun publikoak eta aisialdiko jarduerak arautzen dituen Udal Ordenantza mahai gaineratzen du.

Aipatutako horiek guztiak batzordearen jardunaren egunerokotasunean oinarritzko lan-tresna direlarik, Udala horiek arautzen dituztenen betearazle eta betetzailerik izan behar duela azpimarratzen du teknikariak.

Guztiarekin, egundaino eman diren hainbat dinamikarekin amaitu beharra dagoela, eta horretarako, nolabaiteko protokoloa adostu eta ezarri beharra dagoela ikusten denez,

2015eko urriaren 7an eginiko Kultura Batzordearen irizpena kontutan izanik,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ikuskizun publikoak eta aisialdiko jarduerak arautzen dituen Udal Ordenantza errebisatzea eta eguneratzea.

BIGARRENGOA: Ikuskizun publiko eta aisialdiko jardueretarako Udal protokolo bat garatzea

5.3 IBARRAKO KULTUR TALDE ETA ELKARTEEI 2015 URTEAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

2015eko maiatzaren 8ko 85. GAOn Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2015. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak argitaratu ziren. Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea ekainaren 5ean amaitu zelarik, Batzordeak, aipatutako oinarriei jarraiki, aurkeztu diren eskaerak aztertu ondoren,

2015eko urriaren 7an eginiko Kultura Batzordearen irizpena kontutan izanik,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzen da 2015 urterako Kultur diru-laguntzen deialdira aurkeztu diren Ibarra kultura talde eta elkarteei honako diru-laguntzak ematea

- o *Urteko programazioa gauzatzeko diru-laguntzak:*

TALDEA	2015	60%	40%
PARROKIKO KORUA	900,00 €	540,00 €	360,00 €
SENDI EKINTZA	1.347,33 €	808,40 €	538,93 €
HAUSPIBARRA	8.700,00 €	5.220,00 €	3.480,00 €
ALURR DANTZA TALDEA	8.000,00 €	4.800,00 €	3.200,00 €
GUZTIRA	18.947,33 €	11.368,40 €	7.578,93 €

Orain laguntzaren %60a jasoko da eta 2016ko otsailaren 26a baino lehen laguntzaren %100a zuritu beharko da, horretarako, 2015eko maiatzaren 8an 85. GAOn. Argitaratutako "Ibarra irabazi-asmorik gabeko

298



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

kultura talde eta elkarteei 2015. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak” oinarrietan diru-laguntzak zuritzeko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Batzordeak justifikazioari onespena emandakoan, geratzen den laguntzaren % 40a ordainduko da. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

- o Dantza lokalaren mantenurako diru-laguntzak:

TALDEA	2015	60%	40%
Azkueko lokala mantenua dirulaguntza	2.000,00 €	1.200,00 €	800,00 €
GUZTIRA			

Orain laguntzaren %60a jasoko da eta 2016ko otsailaren 26a baino lehen laguntzaren %100a zuritu beharko da, horretarako, 2015eko maiatzaren 8an 85. GAO. Argitaratutako **“Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2015. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak**” oinarrietan diru-laguntzak zuritzeko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Batzordeak justifikazioari onespena emandakoan, geratzen den laguntzaren % 40a ordainduko da. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

BIGARRENGOA: Onartzea Ibarrako kultur elkarte eta taldeei dagokien urteko programazioa garatzeko guztirako diru-laguntzen 18.947,33 euroko gastua 1.0000.430.334.00.00 2015 “Kultur taldeei transferentziak” kontu-sailari egozte

HIRUGARRENGOA: Onartzea dantza lokalaren mantenuari dagokion diru-laguntzaren 2.000,00 euroko gastua 1.0000.434.334.20.00 2015 “Dantza hitzarmena transferentzia” kontu-sailari egozte.

LAUGARRENGOA: Erabaki hau jakinaraztea Kontuhartzaitetza Sailari eta eskaera egin duten elkarte bakoitzari.

BOSGARRENA: Erabaki hau GAO argitaratu.

6.- GALDERA ETA ESKAERAK

6.1 IDAZKARIAREN ESKAERAK

ABENDUAK 20KO HAUTESKUNDEAK



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Idazkariak Abenduak 20an ospatuko diren hauteskundeen inguruan jakinarazpenak egiteko Aguazila behar duela aipatzen du. Bestalde jakinarazten du beste urteetan edo hauteskundeetan gertatutako gertakariak direla eta beharrezko ikusten duela hauteskunde egunean aguazila edo brigada burua Ibarrara bertaratzea atekin edo suertatu daitezkeen arazoak ekiditeko.

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Aguazilari jakinaraztea abenduak 20ko hauteskundeetako jakinarazpenak berak egin behar ditu.

BIGARRENGOA: Abenduak 20ko hauteskundeetan aguazila edo brigada buruak hauteskundeetan langundu beharko dute ezbeharrak gerta ez daitezen.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta erdi direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.